

BIDELAGUNA

ESKOLA LAGUNTZA ESKAINTZEKO PROGRAMA

1. Zer da?

Ikasketa gelak antolatzen dira ikasleentzat, begiraleek gidatuak, bertan eskolaz kanpoko orduetan eskolako lanak egiteko, baita ikasteko ere; betiere, begiraleen laguntzarekin. Boluntarioa da parte hartzea; baina, programan sartzerakoan, bai ikasleak, bai haren familiak, konpromisoa hartzen dute beteko dituztela programak egoki funtzionatzeko behar diren baldintzak. Programan parte hartzeko eskubidea galtzea dakar baldintzak ez betetzeak.

2. Norentzat da?

Eskolako lanak egiteko orduan laguntza eta orientazioa behar duten ikasleentzat

3. Zein da helburu orokorra?

Lanerako eta ikasteko ohiturak sortzea, eta, horrez gain, ikasgelako erritmoari eta eskola curriculumari eusten erraztea

4. Zein dira helburu xeheak?

- ✦ Ikasleei eskolako lanak antolatzen eta ordenatzen laguntzea
- ✦ Ikasteko oinarriko baliabideak hobetzea
- ✦ Ikasleei ikasten eta eskolako lanak egiten bideratzea eta laguntzea
- ✦ Zalantzak argitzea eta azalpenak ematea, ikaskideen parean egoteko eta arian-arian autonomoagoak izateko

5. Nork gidatzen ditu Bidelaguna gelak?

- ✦ Hainbat begiralek, zuzendaritzaren eta irakasle taldearen babesarekin

6. Zer baldintza bete behar dira programan parte hartzeko?

- ✦ Tutoreak eta irakasle taldeak txostena egin behar dute: bertan, gomendatu behar diote ikasleari programa honetan parte hartzea eta berak dituen beharrianak zehaztuko dituzte.
- ✦ Izena emateko orria bete behar du familiak, eskatutako baldintzak beteko dituen konpromisoa hartzen duela adierazteko.

7. Parte hartzean zer konpromiso hartzen dira?

- ✦ Saiotara bertaratzea eta beti garaiz etortzea
- ✦ Bizikidetzara-arauak betetzea
- ✦ Zerbitzuari probetxua ateratzea
- ✦ Beharrezkoa den materiala izatea
- ✦ Gelako agenda egunean izatea, bertan zeregin guztiak idatzita daudela
- ✦ Begiraleen jarraibideak betetzea
- ✦ Proposatutako jardueretan parte hartze aktiboa izatea
- ✦ Aurreko atal guztien ebaluazioa

8. Nola antolatzen da?

- ✦ Taldeak mailaka osatzen dira.
- ✦ Gehienez, 12 ikasle egongo dira gela bakoitzean.
- ✦ Orduategia: Astelehen, astearte eta ostegunetan, 15:35etik 16:55era.

9. Ebaluazioa

- ✦ BIDEFLAGUNAKo koordinatzailea aldi-aldi batzartuko da begiraleekin. Batzar horietan, programa nola doan eta ikasleek nola egiten duten aurrera (ikasleen lanaren eta etekinaren jarraipena eginda) aztertuko dute. Koordinatzaileak begiraleen eta tutoreen arteko zubi lanak egingo ditu, beraz.
- ✦ Familiek programaren gaineko informazioa etengabe izan dezaten, begiraleek informazio txostena egingo dute ebaluazio bakoitzean. Txosten hori ebaluazioko nota buletinarekin batera helaraziko zaie familiei.
- ✦ Ikasturtea amaitzean, ikasleek eta gurasoek asebetetze maila neurtzeko inkesta bat beteko dute. Haren bidez, jakingo dugu zein neurritan egon diren pozik zerbitzuarekin, eta hobetzeko proposamenak jaso ahal izango ditugu.

OHARRAK

- Programa honetan parte hartzen duten ikasleen familiak erraz aurkitzeko moduan egon behar dira beti.
- Helbideak eta telefonoak eguneratuta egon behar dira beti.